

10.958 urrats eginak ditu Seaskak

‘Euskara hazi euskaraz’ lelopean, Seaskaren 30. urteurrena ospatuko da aurten

HAMASEIGARREN aldikotz ospatuko da Herri Urrats. Denbora gutxi hazi eta besta erraldoi bilakatua da. Biltzen diren dozenaka mila laguntarik gero eta gehiago dira Ipar Euskal Herriatik datozenak. Bestak fama ona lortua duelako seinale... Dudarik gabe, jende horrentzat besta eder bat delako, besterik gabe. Baina euskara madarikatzen zeneko garaia bukatu dela ere adierazten du horrek.

Hogeita hamar urtez, urak egin du bide, eta, ikasle multzo batekin abiatu ondotik, Seaskak 2000. urteko eskola sartzearan 2.000 haurren kopuruaren gainditzeko esperantza du. Seaska hazi da eta berekin batera euskara ere bai, hein batez. Aurtengo leloak adierazten duen bezala, euskara hazten da euskaraz ikasiz, irakatsiz eta hitz eginez.

Pario hori egin zuen Seaskak duela hogeita hamar urte, eta etengabe ikasle kopurua handitu du. Gaur egun euskararen egoera Ipar Euskal Herrian oso larria bada ere, Seaska ez balitz izan are larriagoa izango zatekeen.



1989. urtean egin zen Herri Urrats jaia. Lakuaren panoramika orokorra

BOB EDMIE

Urrats anitz

Aurtengo logoa Iruñeko Kukuxumusu taldeak egina du. Hainbat animalia-urrats azterna ugari ikusten dira, denek norabide berari jarraitzen diotela. Ikastolen ibilaldi luzean, «euskararen alde urrats anitz eta ezberdinak» egin direla adierazi nahi

du. «Euskara hedatzen ari da, ikastolak sortzen, hedatzen eta ugaltzen», diote Herri Urratsen antolatzaileek. «Ez da guti urte hauetan guztietan euskararen irakaskuntzan lortu dena, baina asko da, tamalez, oraindik egiteko gelditzen dena».

Aurtengo berrikuntzetan, Urratsak izango dira. Ez da

oso orijinala Herri Urrats eguneko berrikuntza bati izen horren ematea, baina ez da izen egokiagorik iniziatiba berri horren deitzeko. Alabaina, elkarte, erakunde eta lagun taldeei proposatua zaie 100 liberatan (2.500 pezeta) urratsen erostea, helburua delarik urrats guztiak salduz urratsez urrats aintzi-

raren itzuli osoaren egitea.

Urrats horiek erosiz, diru gehixeago biltzeaz gain, elkarte bakoitzari nahi duen mezua idazteko ahala eskaintzen zaie. Gainera, urrats bakoitzak zenbaki bat izanen du eta, egunaren bukaeran, Eroski Bidaiak enpresak eskaini sei bidaia zozketatuko dira.



123 (*) Vectra 1.6 GL 16Vren fabrikatzaileak gomendatutako prezioa. Garraioa, BEZa eta matrikulazio zerga barne. Plan Prever kanpo. Matrikulazio gastuak kanpo. Penintsulan eta Balearretan balio du.

1, 2, 3 aukerak: beti auto berria izateko erarik errazena.

Ikus ezazu zerbait berri eta bizigarri. Eseri Opel Vectra berriaren bolanteria; energia iturria da. Sentitu gasolina motor berrien eta injekzio zuzeneko 2.0 DTI 16V turbodiesel aurreratuaren potentzia guztia. Gozatu haren erabateko ekipamendua.

- ABS • Neurri handiko airbag-a, gidari eta albokoarentzat
- Aire egokitua • Direktio lagundua • Aurrealdeko kristaljasogailu elektrikoak • Ixte zentralizatua urrutiko agintearekin • Altueran erregula daitekeen bolantea • Altueran erregula daitekeen gidarlaren eserlekua • RDS irrati-kaseta 6 bozgorallurekin.

Opel Vectra 1.6 GL 16V 100zp: 2.641.000 Ptas* / 15.872,73 Euro.*

GASOLINA	1.6 16v 100 zp	1.8 16v 115zp	2.0 16v 136zp	2.5 V6 170zp
DIESEL	2.0 DI 16v 82zp		2.0 DTI 16v 100zp	

GIPUZKOAKO KONTZESIONARIOEN SAREA

OPEL 
INGENIERIA ALEMANA A SU ALCANCE

ANALSA

Tel. 943 74 40 12 Tel. 943 70 08 41 Tel. 943 75 50 72
ELGOIBAR EIBAR MENDARO

Isasti

Tel. 943 31 67 11. DONOSTIA (Gipuzkoa)

Garaje Inglés

Tel. 943 40 00 03 / 40 01 87. DONOSTIA

TALLERES OLA

Tel. 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Irurok

Tel. 943 88 51 50 / 54. OLABERRIA (Gipuzkoa)

Talleres Yarza

Tel. 943 62 29 99. IRUN (Gipuzkoa)